BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

220

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, 2011rako genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetza-erakundeentzat diru-laguntzak ematen dituena.

Lehendakaritzako idazkari nagusiak 2011ko azaroaren 9ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 213. zenbakia, 2011-11-10ekoa), 2011rako genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetza-erakundeentzako laguntzen deialdia egin zuen.

Genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetza-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 15. artikuluan (EHAA, 235. zenbakia, 2007-05-10ekoa), eta, alde batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluan (EHAA, 131. zenbakia, 2008-07-10ekoa), eta bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluan (EHAA, 65. zenbakia, 2010-04-9koa) ezarritakoarekin bat etorriz, eta proposamenak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektorearen oniritzia jaso ondoren, hala jasota baitago 2011ko abenduaren 22ko bilkuraren aktan, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2011ko azaroaren 9ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak ebazpenaren I. eranskinean agertzen diren entitateei esleitzea (laguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak eranskinean jasota daude).

Bigarrena.– II. eranskinean jasotzen diren laguntza-eskariak ukatzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Laugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, eta administraziarekiko auzietako bidea zabalik geldituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 26a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

I. ERANSKINA

GBA-2011 - DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKARIAK

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Helburua	Dirulaguntza
GBA-2011BA/0001	ANESVAD Fundazioa	Genero partaidetzaren diagnostikoa gertatzea eta generoaren aldetiko pro-ekitate Jarduera-Plan Estrategikoa.	26.400,00

II. ERANSKINA

GBA-2011N - EZEZKOA EMAN ZAIEN ESKARIAK

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Helburua	Ukapenerako zioa
GBA-2011BA/0002	Educación Sin Fronteras Elkartea	Genero partaidetzaren diagnostikoa gertatzea eta generoaren aldetiko pro-ekitate Jarduera-Plan Estrategikoa.	Ez du bete 197/2008 Dekretuaren 3.f eta 3.h artikuluak eskatutakoa